

Kimuak egitasmoaren nondik norakoak

LABURRA BEZAIN ZABALA

Berriki amaitu da Kimuak 2021 egitasmora lanak aurkezteko epea. EAEko zuzendari nahiz ekoizleek maiatzaren 24ra bitarte izan dute 30 minututik beherako lanak bertara bidaltzeko. Urtero bezala, Euskadiko Film Labor Onenen katalogoa deritzonak zazpi film labor hautatuko ditu aurtengo programa osatzeko.

 **AINHOA GUTIÉRREZ DEL POZO**

Euskadiko Filmategiak euskal zinemaren inguruko kongresua antolatu zuen 2014an, EHUko Udako Ikastaroen baitan. Euskal Zinema: Zinemagileen hiru belaunaldi izenarekin aurkeztu zuten, eta ordura arteko zinematik emandako gakoei heldu zieten hiru egunetan zehar. Kongresuak nabarmentzen zituen belaunaldiak hala banatuta zeuden: batetik, Euskal Herrian

zinema egiten hasi ziren horiek (Imanol Uribe, Montxo Armendáriz, Ana Díez eta beste asko); bestetik, 80. hamarkadaren bukaerakoak (Juanma Bajo Ulloa, Helena Taberna, Julio Medem); eta, azkenik, Kimuak belaunaldia deritzen horiek, XXI. mendeko egileak (Isabel Herguera, Asier Altuna, Koldo Almandoz, Aitor Arregi...). Kimuak egitasmoarekin batera lanak garatu dituzten horiek dira belaunaldi honetakoak, elkarrekin hazi direnak. 23. katalogoa osatzera doan programa, halere, ari da pixkanaka belaunaldi berrien arrastoa somatzen.

Kimuak 1998an hasi zen jardunean. EAEn egiten ziren film laburren banaketarekin kezkatuta, Jose Luis Rebor-dinosek, egun Donostia Zinemaldiko zuzendari denak, bultzatu zuen iniziatiba ezagun zituen mundu mailako esperientzia batzuetan oinarrituta. Lehen urteetan Kimuak programa egonkortzea kosta bazen ere, urtero-urtero mugitu izan dira hautatutako lanak nazioarteko jaialdietan. Gainera, erreferentziazko katalogoa izatera iritsi da, Txema Muñoz eta Esther Caberok egindako ahaleginei esker. Egitasmoan izena emateko baldintza nagusia zera da: film laburraren zuzendaria edo ekoizlea EAEn erroldatuta egotea. Hortik aurrera, nahi beste lan bidal ditzake bakoitzak. 60 bat lane-

tik gora jaso ondoren egiten du aukeraketa horretarako deitutako zinema eremuko batzorde batek. Behin aukeraketa egina, mundura hasten dira zabaltzen udaberriko kimuak.

Baditu egitasmoak berezitasun batzuk. Lehenik eta behin, irabazi-asmorik gabeko ekimena izatea; hau da, sari, emanaldi eta kopien alokairua edo telebista eta banatzaileei egindako salmentetatik erdietsitako dirua egileei beraiei ematen zaie. Horrek dakar bide-saririk ez izateak baimentzen duen gakoa: berdintasun printzipioa. Hautatutako film laburrek, izan saridunak edo sari gabekoak, tratua bera jasotzen dute denbora eta eskaintzari dagokionean. Askotan enpresa pribatu eta interesdunek egiten duten lana era honetan eginez, aukera zabaltzen zaio hemen egindako filmari ibilbide luzea izan dezan.

Film laburren gain jarritako fokuak ematen du atentzia gehien. Ez dago, zinema komertzialetan batez ere, film laburrak eskaintzeko ohiturarik. Belaunaldi nagusiagoek gogoan dute nola larunbateko zinema proiektioetan beti eskaintzen ziren labor eta luze bana. Zinemaldietan ere betetzen da formatu hori, baita zineklubetako egitarauetan ere. Ez, ordea, gehien kontsumitu izan dugun zinemari. Ohituta gaude ordu eta erditik gora irau-

Maddi Barberren
564 metroz goiti
filmeko fotograma.



ten duten fikzio mugituetara, askotan pentsatzeko tarterik ere uzten ez duten horietara. Laburrek badute beste zera hori, gehiagorako gogoz utzi arren, boro-biltasun modukoa helaraztearena. Film labur onak iradoki dezake, esan gabe; zabalki aditzera eman dezake zerbait. Orain gutxi Euskalerriratutako Joseba Sarrionandiak bere ipuinen inguruan zioen: “Zergatik tipiak? Bilatzea maite duenari tipitasunak bilaketaren atsegina ugaltzen diolako, edo autorea lan luzerako nagia delako, edo lana hasita bihar etzi huts egitearen beldurrez luzarorako engaiatzen ez delako, edota gauza tipietan handietan bezainbeste sekretu kabitzen delako”. Badago, zentzu honetan, laburmetraigileak ipuin-kontalaritzat hartzerik. Kimuak egitekoa da sekretu horiek munduari kontatzea.

Aurreiritzi asko dago film laburraren inguruan. Badira egia diren hainbat kontu ere. Baliabide eskasiari lotzen zaio askotan, edo gaitasun ezari. Egia da denbora eta eskaintza aldetik errazagoa dela labur amateurra ekoiztea film luzea baino. Errodatzeko egun gutxiago, lagun artean eta pintxo batzuen truk, mesedeak nonahi eta unibertsitateko materiala maileguan. Eta nork ez du egin auzoko jaietako film laburren lehiaketarako bideorik? Dirurik gabe egin daitezkeen gauzak dira. Hor-

tik haratago, badago bere denbora horri eskaintzen dionik: afizioa edo ofizioa. Ziniegile askok, film luzeak egin ondoren ere, maite dute laburrak egiten jarraitzea. Eta ez da helburua profesionaltasuna eta amateurrismoa elkarren kontra jartzea: film laburrak egiteko modu ezberdinak daude. Posible da teknikoen ekipo batekin lan egitea, diru-laguntzak jasotzea, soldata duinak edo erdi-duinak sortzea eta lanbide bezala hartzea. Aitzitik, industriak ez du gehiegi laguntzen horretan. Batzuetan, badirudi sari bat lortzea dela jarritako dirua errekuiperatzeko modu bakarra, eta horrek kalte handia egiten dio ekoizpen mota horri.

Film luzea egitera bitarteko bidea dela uste duenari begien aurrean jarriko nizkioke Maddi Barberren 564 metroz goiti (2018), Sara Fantovaren No me despertéis (2018), Marina Palacioren Ya no duermo (2020) edo Ageda Kopla Taldearen Beti bezperako koplak (2016). Guztiak dira Kimuak hainbat ediziotan hautatutako laburrak, baita gai eta trataera aldetik euskal zinemari ekarpenak egin dizkieten lanak ere. Barber gai izan zen 24 minututan Itoizko urtegiak utzitako eragin fisiko eta psikikoetara maisuki hurbiltzeko; urtegiaren eraikuntzaren arrastoak gordeak ditu filmean. Fantovak postETA

garaiaren arrakalak erretratatu zituen nerabe baten begietatik, hainbat tabu apurtzeko erabakia hartuta. Palaciok familian egindako film baten inguruko filma ekarri zuen iaz katalogora, banpiroen eta mamuen esanahiak zabalduta metazineman. Maialen Lujanbioren kopleatik abiatuta, Ageda Kopla Taldeak animaziozko lan kolektibo fina garatu zuen, eta bertsolariaren hitz zorrotzak bisualki irudikatzea lortu horrela.

Azken lan horiei erreparatuta, euskal zinema munduko belaunaldi berrien inguruan hitz egiterik legoke. Badaude horretarako bidea egiten ari diren zuzendari eta filmak; ikusten ditugu zine jaialdietan, proiektzioetan, edo mahaingurutetan. Ikusteko daukagu zein bide izango duten film laburren kontsumoak, Kimuak hautaketa irizpideek, edo industriaren asimilazioak. Askotan film laburretan ageri da freskotasun gehien, esperimentaziorako joera, edo zinemagile berrien lehen pausoak. Akaso, film luzeak film laburrei begira jarri beharko lirakeke inspirazio bila, eta horrek beste pisu bat emango lioke laburren ekoizpenari. Auskalo. Ekainaren lehen hamabostaldian izango dugu aurtengo Kimuak katalogoaren berri, eta ikusiko dugu zein erronkari heltzen dion egitasmoak. Bitartean, agur erdi bat, laburra bezain zabala. ●